

Iñhurrietako neska

Maryse Urruty-k kontatua

Garai batean, Mithirinan, artilea iruteko emazteak Inhurrieta etxaldean, biltzen ziren.

Gau batez, bertako neskak bere lankideekin pario bat egin zuen:

- Mendiko iturritik ura ekarriko dut !

Hori erran eta gero bere pegarra hartu zuen eta kanpora joan zen.

Beste emazteak ilargipean egon ziren Inhurrietako atarian.

Tarteka, "Nun haiz?" – deiadar egiten zioten.

Eta hark "Istante heldua naiz!" – erantzuten zien.

Bainan momentu batez emazteek ez zuten gehiago erantzunik entzun...

- Nun haiz? Nun haiz?

Bat batean, Inhurrietako atarian haize ukaldi bat iritsi zen eta norbaitek erran zuen:

- Eguna egunekoentzat eta gaua Gauekoentzat!

Orduz geroztik nehork ez du sekulan Iñhurrietako neska ikusi!

